

# IDOIA MENDIA CUEVA

## EUSKARARI BABESA, HERRITARRARI ASKATASUNA

***“Asko maitatzen dut euskara;  
asko maitatzen dut nire sorterria;  
baina are gehiago gizonaren  
dignitatea”***

Gabriel Aresti

**E**uskara batuaren 50. urtemuga ospatzen ari garen urte honetan, beharrezkoa da gogoratzea Ermuan izan genuela Arantzazuko Batzar ospetsuaren aurrekari ez hain ezaguna. Euskararen batasun prozesuak sortarazten zituen tirabirak ikusita, idazle talde batek bilera bat antolatzea erabaki zuen 1968ko ekainean, euskalkietan zatituta zegoen hizkuntzan elkargune bat aurkitzeko nahian. Bertan, erabakiak zin eginez hartu ziren, eta handik “Ermuko Zina”, Arantzazuko Batzarraren bezpera izan zena.

Gogora ekartzen dut gertaera hori, esan-guratsua baita Ermuan izatea egungo euskara batu, arautu eta aitortuaren iturburuetako bat. Langile-herri peto-petoa, ondoko Eibarko garapen industrialari helduta, izugarritzko hazkunde demografikoa izan zuen urte horietan (60ko hamarkadan, 3.029 biztanletik 14.651raino pasatu zen Ermua, Bilbo edoartzelona bezalako hirien dentsitatea gaituz). Ez da arraroa behin demokrazian feudo sozialista bilakatzea.

Ermua ez zen, zehazki, euskararen defentsaren gotorlekuetako bat, “putzu sakon eta ilunaren” urte horietan. Baina, uste dut paradoxa honek zer edo zer esaten digula euskal gizartearen izaera pluralari buruz; gure herrian nahasten diren jatorri, identitate eta bertakotasun-sentimendu anitzei buruz. Gizarte ireki eta mestizoa gara. Gaur orain dela berrogei urte baino askoz gehiago. Eta ekosistema konplexu eta aldakor honetan egin behar du euskarak aurrera, hiztunak irabaziz, zubiak eraikiz, aurreiritziak bazter batera utziz.

Ermua eta Arantzazuko biltzar horietatik mende erdia igaro denean, aitortu behar dugu bateratzearen prozesuak ekarri duen arrakasta ez ezik, euskarak arlo guztietan izan duen hedapena: gizarte arloan, lan-arloan, administrazioan,

hezkuntzan, komunikabideetan... Euskara XXI. mendeko mundu anitzetara zabaldu da (zabaltzen ari gara), eta horixe erakunde, alderdi, eragile sozial eta kulturaleri esker izan da; baina, bereziki, jatorriz zein ikasbidez, euskaraz bizitzeko ahalegina egin duten herritarrei esker.

Ezin da gutxietsi aurrekontuen eta arauen aldetik egindako esfortzua ere. Kolore desberdinetako gobernuak izan ditugu Euskadin, eta denok izan dugu jomuga euskararen sustapena. Gogoarazi nahi dut, Patxi Lopezen gobernuak izan zela euskararen ezagutza tituluak balioztatu zituenak, hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekin parekatuz; Agintaritzaren Aldizkaria itzultzeko neurriak martxan jarri zituenak; euskal ikasketak egiten dituzten gazteei hizkuntza ziurtagirien beharrez salbuetsi zituenak; ESEP-Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartu zuenak edota euskara-gaztelera itzultzaile automatikoa garatu zuena.

Instituzioek dena eman dugu euskalduntze politiketan, eta herritarrei gehiago eman dezatela eskatu egin diegu. Baina bide horretan, atzera begiratzerakoan, beharrezkoa da onartzea emaitzak ez direla espero bezain onak izan. Soziolinguistika Klusterraren iazko Hizkuntzen Erabileraren Kaleko Neurketaren zazpigarren azterketaren arabera, euskararen erabilera jaitسي egin da kalean azken bost urteetan, %12,6raino (1997tik izandako portzentajerik txikiena).

Datuak ez dira homogeneoak, baina bat datoz, adibidez, Eustatek euskararen erabilerari buruz darabilzanekin, hala nola azken urteetan argitaratu diren ikerketa desberdinekin. Euskalduntze politiken helburua hizkuntzaren erabilera sustatzea bada, datuek neurri horien eraginkortasuna zalantzan jartzen dute.

Zein da euskal komunikabide publikoen lekua sustapen politiketan? Sortzen al dute euskaldunok merezi dugun euskarazko edukia?

Eta gakoa ez dago laguntza publikoetan. Behin baino gehiagotan esan dut: Euskadin ekin-tza kulturalak bi hizkuntzatan egiten dira, eta gaztelaniazkoek ere laguntza publikoak behar dituzte (eta hori, tamalez, ez da beti horrela izan).

Administrazio publikoek lan mordoa egin dugu euskalduntze politiketan. Baina administrazioekin dugun erlazioa ez da herritarren bizitzaren ardatz bakarra. Are gehiago, hizkuntza biziek ez lukete burokraziaren instrumentu bihurtu behar.

Euskararen erabilera zenbat eta demagogietatik urrutiago, orduan eta hobe (gutxieneko hizkuntza eskakizunak goi-karguentzat, etab). Erronkak beste nonbait daude: hezkuntzan, eredu-antolaketan, administrazioetan (hizkuntza eskakizuna eduki arren, hizkuntza erabili nahi ez dutenengan), EITBn, eta abarretan. Iaz, aldizkari honetan bertan argitaratutako artikuluan, horietako batzuk garatu nituen.

Mundu berri batean gaude. Nire semeek ez dute Internet erabiltzen informazio bila edo erosketak egiteko; bertan bizi dira jada. Eta bertan egon behar da euskara, euren bizitzaren parte izateko. Euskarazko edukiak sustatu behar ditugu Interneten. Hizkuntza mundu digitalera moldatu, bere ertz eta izur guztietan (lan-arlotik aisiaren kulturara).

Zain dugu EITBren azterketa sakona, jatorrian zituena euskalduntze eta normalkuntza helburuak berreskuratu ditzan. Gure irriti-telebista jaio zenean, biztanleen herenak soilik ezagutzen zuten euskara, eta hori zen, beraz, euskarazko telebista batek izan zezakeen gehieneko audientzia. Gaur, milioi bat hiztun baino gehiago ditugu, baina ikusleak beherantz doaz, termino erlatibo zein absolutuetan.

Hemen ere, hasieran aipatu dut Euskadi erreala, anitz eta aldakor hori erakustea funtsezkoa dela, 2018ko euskal herritarrek identifikatuak senti daitezkeen euren komunikabide publikoetan.

Gaurko euskal gizartea ez da 1968ko Arantzazukoa, ezta 1968ko Ermukoa, desberdintasunak desberdintasun. Hizkuntza-politika orok argi izan behar du ezin direla hiztun berriak erakarri erakargarria ez den ingurugiro batera. Horretarako, eduki (kultural, digital, sozial, etab.) interesgarriak sortu behar dira, baita, gaztelaniadunen kasuan, euren ama-hizkuntza errespetatua eta baloratua sentitu ere. Hauxe da, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren adierazpenean aipatzen ziren zubiak indartzeko oinarria.

Sozialistok normalkuntzari buruz hitz egiten dugunean, norberaren erantzukizunaren eta askatasunaren ikuspuntutik egiten dugu. Esku batean hartzen dugu euskararen sustapena, eta bestean, herritarren askatasuna, bien arteko oreka defendatuz. Euskarari babesa, herritarri askatasuna. Horixe da gure bide-orria. Horixe, euskal gizarte berri honetan, euskarari etorkizun osasuntsu bat bermatzeko errezeta.